Azcoitico Parroquian 1737. urtean. Virjiñaren icenaren egunean

Stabat iuxta Crucem Iesu Mater eius. Ioan. 19.

Ceruco amabi Signoetaric Iraillean, gauden illabete onetan oi degu Libra, edo balanza deritzan izar pilla bat; Biguyac dioste, ecen beiñ batean Iusticiac lurrean lecuric arquitzen etzeuala, gogaitu ta igues igo zala Ceruza, ta ifiñi ceuala bere vicitza balanzaren echean. Vitecabea diraudi onec; baña da gauza bat egungo evanjelioac dionari ederqui dagocana. Esatendigu, Virjiña guciz santea dagoala zutic gurutzearen ondoan, stabat iuxta Crucem Iesu mater eius: ta Eleizac diones, gurutzea da bere beso biaguin balanza bat, ceñean pisatu zan Christoren gorputza, beata cuius brachiis pretium pependit saeculi, Statera facta corporis, tulitque praedam tartari. Alde bate pecatuaz betcaic, infernurano pachia cegoan, artan guendela Adanen hume gustioc. Etzan guizonen artean lurrean, ez eta ceruan aingueruen artean, hura jasotzeco diña pisuaic, ta indarric: ain da astun, ta icaragarri pecatua. Ayaric Jaincoaren semea, gue ecer mereci ez guendicela, guizon eguin, ta jarri zan balanzaren beste aldetic: eta nola ceicatzien Jaincoaren indarguciac, jaso guinduen Cerutaño, guentzan leicetic, jaisten, ta ondatzen ceuala bere burua,

(Zalacoai derizte Signoac Ceruan.)

in hymno.

Arm. XXII.-2.-L.1 D.10

il ta lurperatu zanean. Artaraco bada neral
irudian dago Virjiña gurutzearen ondoan zutic, ba-
lanza au escuetan duala; icusi dazaigun Ada-
nen humeac, nolaco Justicia eguiten dan, ez beca-
tarietan, bai jure becatuac bere contura artu ci-
tuan batean, bai Jaungoico-guizon, becatu baguecoa,
Virjiñaren seme bacarrean. Gaur bada hitzeguin
beardegu, Calvarioan, ta gurutzearen ondoan bagueunde bezala, balanza
au bere escutic quentzen diogula Virjiñari, ta ar-
tzen duala bacoitzac bere escuan, pisatzeco aldeba-
teric Virjiñaren miñac, ta somiñac, damuac ta
doloreac, besteric gueren atsecabea, ta arduraba-
guea, eta cein esquer gaistocoac gueraden.

Cer da au, esango dit norbaitec, Virjiña
orrec icenic ezteu, beiñ bederic aitatzeco? Eran-
zungo diot, gaur bear guenduela icen orren
eguna: baña ez eguníc idorotzen dezala, ez eta
Virjiñaren icenic jaunco Evanjelioan. Berriz ez
bide dira ondo eltza aditzen Virjiñaren icena, ta
Virjiñaren doloreac, eta orregatic alde eraguiten
zaca gaur icenari. Nic esango det cer dan. Virji-
ñari deritza Maria, ta icen au da alde bateric
ezti, gozoa, ta adierazotzen digu Jaungoicoaren
ama bere aunditasun, ta doaiñ juiaquin: beste-
ric da miñ, garratza, ta adierazotzen dirauzu
Virjiñaren doloreac, cergatic aimbat da Maria
edo itsaso miña: baña cerez mindua, ezpada oñacez,
atsecabez, damuz? Orain bada ezti gozoa dan bezanbat,

camporatzen degu gaur Virjiñaren icen au: miña ta
jarraitza dan bezan bat, betor, ta bego: eztagoca bes-
teric gaurco eguinari. Aldera jaquizquion bada guru-
tzeari, ta Maria Virjiñari.

Baña cer da hori Virjiña guciz santea?
cer esan nai dizu zeure aurpeguiera damugarri or-
rec? Cerentzat dezu soñeco gaia (i)dirudien hori? Cer
eguin da zeure begui(e)n gozoa? nora joan da zeure
aurpeguico edertasuna? non ezcutatu da zeure colorea-
ren naite churi gorri greciari hura, edo nola dago
ain itsusqui ubeldurie? Orain daño esan oi cideen,
zeer ciñala arrco ceruan bein batean aguertu zan
señale aundia, izarrez burua, illarguiaz oñac, ta gor-
putz gucia guzquiaz jarria, ta edertasunic cencana. Eta
badaust, utseguin cenzela. Ezferen non cerate ezquea
jaicoco izarrac? Oi eta atera albanequiz beren le-
cutic, Señora oni bear danezco coroe bat guireco!
Non cera, Cinthia, illarguí aldagarria? Oi eta alba-
negui ~~[illegible]~~ oñarpitzat ezarri aren oñarpietan! Non otet
zabiltza oraingoan bederic ezaguera bagueco eguzqui
itsua? Oi eta zeure argui-errañuetatic egaqui alba-
neguio gueure Ama mindun oni mantueric ederre-
na! Orrela egon bear deu Virjiñaric gozoena, miñez,
damuz, ezpataz ene biotza josiric?

Eta Ama maitea, atozea, non dar zeure aurra,
Jaungoicoa dan hume chucun, polit hura? eztaucazu
besoetan, eztaramazu escuric, eztezu alboan, ez begui-
en aurrean. Non da zeure seme bacarra? non zeure
argui, zeure arnase, zeure bicia? Ote da guruitzean
dagoan gorputz itsusi beztu hura? + ta cein ur, ta sa-
+ oi eta hori orrela baldin bada,

mur jarioco zaizean negarrac bere beguietatic guer-
re errequiñari! ô mocadera, lienzo churi alaco negar
tantaz betè ta ïandiric ciñatenac! nori emango di-
guet zuetatic bat, nere ezpañac iguitzeco, ta Virji-
*gaitzbagueac-quin. ñaren negar inocenteaquin* nere negar pecatariac
nastutzeco? Cein dan latz eta gogor nere egungo be-
ar gaya! cein lizic eguin daguiquet, graciac ezgadit
laguntzen: ta ezter hura billatzeco nora nere burua i-
rauli? Belaunico Virjiñaren oñetan jarrico ote naiz?
baña cer esango diyot, oñacez, damuz, miñez gañez
guiñic badago? Graciaren escatzeac gogoratuco digo be-
re dolore guciien asiera, ta jaiotza, ta eztiruldi ondo, nic
aren miñac aunditzea. Igoro ote naiz Cerura? baña o-
raindio ichia dago, ta arria bezain gogor. Otseguingo
ote diyot Aita eternoari? ay ene! aretian bere semea
ez aditu nairic cegoan, ta nola adituco nau ni? Joan-
go ote natzaca guruzean dagoan gueure Erredentorea-
ri? Bai, baña onezquero ausaz il da. Cer eguingo det
bada, edo norjanaco naiz? Badaquit guero ere nor-
jana: doloreen Amari eguin bear diyot, ez besteri,
graciaren escari au. Ainguerua etorri citzacanean
Luc. 2. berri onac ematera, esan cion, Ave gratia plena; agur
graciaz betea: ceyatic bada bere icena aitatu ta esan
etzion Ave Maria, ta ceyatic ezcutatu cion icen
eder au? Eranzuten deu Delrioc, ideo quod nomen
Polem. 2. istud omen amaroris futuri sciret angelus paranim-
phus hodie salutans à nomine abstinuit, nec dixit
Ave Maria gratia plena, sed Ave gratia plena. Ez-
cutatu cion ainguerunac Virjiñari bere icena, ceyatic
Mariac esan nai deu itsaso miña, ta ain zori oneco

berníac ematen tiran, gun batean, ezetorren ondo, bere icenean Virjiñari gogoratzea bere doloreen itsaro samiña. Bada contraco bideric, gaurco Gunean, Virjiñaren dolore, damu, miñ, atsecabé guziéq gun batean, eztagoquit gaizqui, orreec guztioc berriro esatea Virjiñari bere icenean. Banoaquio bada graciaren esque, Eleizarequin batean esaten diyodala, Ave Maria.

*Stabat iuxta Crucem Iesu*
*Mater eius. Ioan. 19.*

Esacetan dyula bada, arri degun gira au, dacusgun alguiñez cembat giratzen deuen Virjiñaren doloreac. Dolore baten neurria ta sustraya omen da amodioa: cembat eta aunditzen, edo chiquitzen dan amodioa, ambat aunditzen, edo chiquitzen oi da dolorea: bada contra onetara fiñ eta neurri bagueeoac dira Virjiñaren doloreac, cerren finic, eta neurriric bagueeoa izandu dan Virjiñaren amodioa. Gurasoac nai oi die beren semeai biotzetic: ta semeac doaiñ anditcoac diranean, nai oi die gueiago: eder, galantac diranean, are gueiago: cintzoac eta asco jaquiñac diranean, are gueiago: guciaquicoac, ta mundu guciaren chorajarri diranean, are amatzen dituzte gueiago. Baña zauso ben ben oerarie nejar eguiten deue, alaco semeac iltzen zaistenean. Bada, ô Virjiña guciz santea, nore esango digu, cembat nai izandu cinion zeure semeari, ta cembat damu artu cenduan aren eriotzean? baña notaco semea? Christo Iesus, ama guciétatic jaio dan semeric ederrena, cerua orain daño garaitu deuen gazteric lirañena, doaiñic andi-

enecoa, eintzo, jaquintsu, zur, gozo, gucicaguicoa, ta cerugucien miraba. Nolaco amodioa berar izango cion bere amac onelaco seme bati? Virjiñac berac badio, ecen Jaungoicoac prestatu, ta zucendu cijola biotzean amodioa, ordinavit in me charitatem, bacantzen cijola zaldun pilla aundi batzuetan bezala, batallaren bat ematera diasenean, distributam in ordines militares, ac in praelium procedentem. Nori baña eman bear dio batalla au Virjiñaren amodioac? Nori? beste edocein neurri, ta aldera ~~[illegible]~~ nai daguiqueonari. Amodio guzia, onirizta guzia, nai, ta borondate guzia, mundua asi zanetic izandu diran ama guziena, ur tanta bat itsasoaren aldean bezala da, Virjiñac bere semeari cion amodioaren aldean.

Delrio ubi sup.

Beste gurasoac zor eztie beren semeai, aberats, eder, sendo, osasun onecoac izatea; cerren semea ezta jaiotzen nai duen amagandic, ezta bere escuco baragandic ez jaiotzeco, ta besteagandic bai. Baña Virjiñac zor cion bere semeari, zan, eta cenan guzia: zor cion beinic bein munduan zan bumeric eder gozoena izatea: are zor cion jatorriz deguñ pecatu bague sortzea, grazia guztiaz betea, ainguruac baño gorago jasoa, ceruarequin lurraren aguintaria, ta erreguiña, ta beste gucien gañean Jaungoico baten ama izatea. Orain bada uste cenuala berejan Virjiñac, ta zor ciosala bere semeari, ez besteri, nola uste dezue amatuco cenala, nola naico cijola, ta cein izango cenala biotzeco maite? Ezta au lurrean dira guerran artean, jaquin aldaguiquegun gauza, eta eztaguit, ainguruac ere jaquingo al duen cenuan.

Aimbeste bada bere semeari nai izandu cion amac, icusi cenuan illic bere adinaren lorean, illic se-

meric gaitzbaguecena, pecatuaren cutsuric ere etzeuana. bacoitzan gurutzearen ondoan, gazteric ederren arc bicia justiciac aguindu ta galtzen cenuala: guzien onguille hura gaitzguillea, ta gaiztaguerian bicitua baliz bezala: guciac aberasten cituena, iltze gogorrez lagun bizen artean zur bati josia. Atozte batean seculaco umete guciac, esan eguidazue arren, iñoiz ere sortu dan alaco icusgarriric. Eta dolorezco Ama, cer diozu? arren hori da zeure semea? Espiritu santuagandic sortu zana? secula guciac icusi dituen guizonic ederrena? Nola dago bada hitzic, arnasaric, bicitzican bague? Nora zuaca bere zaiñetaco odola? Lurrean, baratza, cale, bide guzietan isuria, ta borrero latzen oñazpietan, abere batena baliz bezala. Mia gueldi ta isil, ezpañac itxiric, beguiac argui bague, colorea ubel, burua zulaturic, oñescuac josiric, bizcarra bostortzaturic, besaburuac lurri diguituric, ta gorputz gucia zauturic. Cer diardu bada zure amodioac? Cer esaten diozu? Aoaz isilic dago, baña biotzez, ta bien arteco itzcundearen batean, onela itzeguin ceguiquion. Ay nere seme gozo, nere beguietaco argui, nere biciaren bicia! nola ifiñi zaituzten Adanen umeac! Onelaco acabera bear cenuen asiera aiñ ederrac? Pagu au merezi cenuen zeure oneguiñac? itsustasun au aingueruen edertasunac? eta il bear cenuanean, ecin bestela acaba citequean neure errayetaco seme bacarra? Ay neure semea, ta jabea, nolacoa zaduzcaten guizonac, ta emacumeac? Cer guin ote dezu? Cer pecatu, cer dollorqueria, cer gaiztaqueritan arguitu ote cera? Cer gaitz, cer calte eguin diezu guizonai? Centan ofendidu

diozu? Cergatic dizute gorroto, ta etsaigo aiñ aundia?
O emen ceraten ainguerüac, beguira nolacoa dagoan
zuen Criatzallea: aita eternoa, ona emen zeure semea
illic, edo alde aldean, zeuri obeditzeagatic. Guizonac,
buruzicoac ezpacerate, emacumeac, erruquiric bade-
zute, beguirezazue nola dagoan zuec irabazteagatic,
infernutic ateratzeagatic, Ceruan eramateagatic. Icusi
ezazue, edolaric neurri merede eguiteagatic, ote dan
iñon, ta iñolaz ere neure dolorea bezalacoric, at-
Thren. 1.12. tendite, et videte, si est dolor similis sicut dolor
meus.
~~Eguin diozagun~~ Daguiogun guztiz laburr au. Tobiasen amac,
bere semea campora bialdu ta cegoanean, sendo,
ta osasunaz bacebillen ere, negarrac eguiñ oi cituen
erremediaguizun ezinanac, esaten ceuala maiz, ay
Tob. 10.5. ene! ay ene, neure semea! flebat irremediabilibus
lachrymis, et dicebat heu! heu me! fili mi. Cer ne-
garrac beraz eguingo cituen amaric onenac, seme-
ric onena ceucala, ez sendo, ta osasunaz, bai gu-
rutzean josiric, eteric, illic bere etsaien escuaz? Ra-
guelec ez consueloric naizuan, ez consolagarriric,
icusi cituenean ezaguiric araco Martyreen lenengo
lorachoac, amalau milla aurcho, Herodesec illera-
Matth. 2.18 zo cituenac, noluit consolari, quia non sunt. Nola-
co damu ta naigabeac izango cituan beraz gueure
Ama dolorezcoac, icusi ceuanean campoetaco lorea,
Jesus Nazaretarra, bere errayetaco semea illic, ta i-
jaturic? Elias, Profeten artean animo andieneco
arc, biciz ere nai etzeuan, icusi cituenean deseguiñic Anselm.
arrizco altareac, ta illic berte Jaincoaren Profetac, De Excel…
3. Reg. 19. suffriut mihi Domine, tolle animam meam. Virgiñac Virg. c. 5.

icusi cenuan illic Proferen erreguea, ta Sanaturic
Jaungoico biciaren altarea, ceñean ofrecitu zan holo-
caustoric oriena, ta santuena. Icusi cenuan guruzean,
ta guero bere besoetan, nor, edo nola icusi ote cenuan?
Pensaezazue astiro urriquimenduac. Esan dituzune-
tan ezta aguiri Virgiñaren Doloreen arza deuanic,
*similis sicut dolor meus*. Billa daguijun albadegu
beste lecutan.

Dogora ditzagun, iñon edo, adire, edo iza-
cirri ditijun Martyreen tormentuac: ceiñ aundiac
aec, ceiñ gogorrac, ceiñ izigarriac! batzuec buru-bague-
tuac, besteac elorri, arantzetan arrastatuac: batzuec
azotez mallatuac, besteac berun urtu gorian irabia-
tuac: batzuec surtan erre guisalduac, besteac guztu
laurenduac
izozmetan itoac: batzuec lauzguintuac, besteac crucifica-
tuac: batzuec larru diguituac, besteac beren ezur guzie-
ceatuac
tan abarraguinduac, zatituac; eta ceiñ contra leguizgue-
an beste eriotza mota asco. Bada martyrio orreec
guciac dacarciten dolore guciac igaro cituan Virgiñac
bere biotzean. Biotz arc sentitzen ditu, ezpataz josiric ba-
lego bezalako doloreac: biotz arc sentitzen ditu, guzica
chiquitan ebaguitzen baleue bezalaco doloreac: biotz
arc sentitzen ditu, berun urtu gorian irabiatzen ba-
leue bezalaco doloreac: ta onela beste gañeraco guz-
tiac. Baña ala ere ezteue Virgiñaren doloreen an-
zic, ecer ez bat dirade aen aldean. Eztiot guezurric,

Anselm. De Excell. Virg. c. 5.

ezpada santuac esaten deuena, *quidquid crudelita-*
*tis inflictum est corporibus martyrum, leve fuit, aut*
*potius nihil comparatione tuae passionis*. Ta dolore

caudelac! Ia min gogorrac! nola atrevitzen cerate biotz
garbi, biguiñ hori, azaleric ere uquitzera? nola etzoar-
te beste alde batera? eztira ausaz munduan biotz
pecatariac, ondo merecí zaitueztenac? Oñace Jesu gar-
ratzac, lanza-guiozue biotz gaitzbaguedun orri: bi-
lla itzazue burnizco biotzac, gaitzez beteric daudenac.
Zoazte Mairuetara, Juduetara, ta aen biotz itsusie- Psalm. 47
tan sar zaitezte: baña ez arren Virjiñaren biotz * ugolac
beraa somindu, ez erretu, ez uquitu. Ay Virjiña, gueu-
re Ama! ez diazela beste lecutara zeure doloreac:
badira eleiz onetan arria baño gogorragoco bio-
tzac. Betoz nigana, nere biotz pecatari onetara: au
da zeure eralle traidore, miñez, dolorez, ta damuz
betetzen zaituena. Ni naiz nere pecatuaquin zeure Thren. 2.
semeari bicia quentzen digodana. Atera guizu cere-
gandic ezpata hori, sartu eguidazu, josi daguidan da-
muz, ta dolorez nere biotz gogor au. Nitez naico
det iltzea, ta nere odol guztia ixurtzea, zeu orrela ez
icusteagatic.

Daucagun edolaric Christoren tormentuetan
arquitzen ote degun bere amarenac bezalacoric. San-
tuac dioe, ecen semeac gorputzean igaro cituan tormen-
tuac, padeci-cituala Amac biotzean: ta artaraco ecarri
oi deue Simeonec gan cijona, et tuam ipsius animam
Luc. 2. pertransibit gladius, zeure aren anima bateric beste-
ra igaroco deu ezpatac. Nola izango da hori?? anima *
hori semearena baldin bada, ipsius animam, nola
amaren animean ezpata sartuco da? eta amarena
baldin bada ~~[illegible]~~ anima hori, et tuam, nola hiritzco

Ceu semearena? Cergatic bien animac aiñ daude
elcarganá, aiñ estu loturic, ta charidadeaz aiñ daude
bat eguinic, non ecin semearen anima egui dagui-
guean ezgatac, amarena ucutu uguitu bague, et tuam ipsi-
us animam pertransibit gladius. Orain bada norc
dagui ceiñ aundiac ciran semearen tormentuac? om-
Psalm. 87 nes fluctus tuos induxisti super me, esaten cion bere
* ucolac aytari, miñ, damu, dolore guciéz bagac* eracarri diozu-
nere gañera: bada baga oec guciac limurzitu ta jauci ci-
ran semearen jorquitzeric amaren biotzera, sed omnes isti
fluctus, dio Delrioc, a filio in matrem defluxerunt.
Ayaric Jeremiasec, besteric etzeuala cerequin Virgi-
ñaren dolorea neurtu, berari legocala, esan cecuan,
aundia da itsasoa bezala zeure miña ta damua,
Thren. 2. magna est velut mare contritio tua. Cateac eta so-
cac lotu cituzten semearen escuac, ta estutu cecen
amaren biotza: masallecoac éxitu cecen semearen
aurpeguia, ta odolustu amaren biotza: aranzac zula-
tu cecen semearen buruá, ta barrutu ciran amaren
biotzean: iltzeac sartu ciran semearen oñescucan,
ta josi cecen amaren biotza: lanzac idigui cecuan
semearen sayetsa, ta esegui ta gueldi tu zan amaren
biotzeric, sed omnes isti fluctus a filio in matrem de-
fluxerunt. Iñor ere arquitu al badedi amaren dolo-
reen iduriñgoa anza derarik, eztezue arquituco, ez-
gada bere semearen passio osoan, eta sanhan.

Aunic aundiena quichitzen, edo gozatzen
ci da, consueloren bat nombaiteric artzen danean.
Bada Virjiñaren doloreac consueloric iñondican ere

Thren. 1. eztecan izandu. Non est qui consoletur eam ex omni-
bus charis eius, esaten deu Jeremiasec, ezta consola-
daguiqueanic Virgiña, ez eta bere maite guzien arte-
an. Ez guri orrelacoric esan Jeremias: Ezta izango
Juduen artean, orrec diña etsai gogor ezaguera ba-
guetuac: baña eztala iñorere Virgiña consola da-
guiqueanic, are bere adisquide, bere aide, bere mai-
te guzietatic, ex omnibus charis eius? Ezta sinis-
taguizuna. Ezperen Aita eternoa, arren zeuc ere con-
solatze ezteozu zeure alaba maitea? Ez, ez; berariaz
laga deu erotia, ta egun guztiar damuz ta miñez
artiratua, posuit me desolatam, tota die merore
Ibidem confectam. Espiritu consolagarria, arren zeuc ere ez,
ezteozu zeuc ere zeure ain biotzecoa desun esposeat
consolatzen? O! eta miñaren gortitza! berariaz ezcu-
tatu zaca, ta urruti chitez igues eguindio, longe
ibidem factus est a me consolator. Edolaric consolatzeco al
deu bere seme alboan deucanac: ez eta hori ere, aur-
qui esango dedan bezala.

Nombait ala bearco cenduen ama gena-
rria, ez bestetan, ezpada urguetsi zeure negarretan ar-
guitu gozagarri piscarenbat. Baña cer diot? Sanu
ascoc diotenez, ceiñ ere dan gisa gozagarri hori, uca-
tu cizacan Virgiñari. Beste damuz, ta miñez daude-
nac, negar eguiteaz arintzen oi deue beren biotzeraco
gisu itogarria: baña Virgiñari quendu cizacola, dioe,
are atseguin chiqui au, arean egun izan cedin, omnia
Eccles. 1. flumina intrant in mare, et mare non redundat, ibai
guziac itsasoan sartzen dirala, ta itsasoac eztauala
gañez eguiten. Virgiña santearen biotzean sartzen

dira Dolore, damu, assecabe, miñ guzien ibayac: oi
eta au miñez betericaco itsaso neurri bagueá! Egui-
zu bada negar, ama santea, biotza cerbait uxitzeco,
zure itogarri hori arintzeco, zeure anima piscacho bat
bederic lasaitzeco: baña mare non redundat, eztie e-
man nai orrelaco gozic. Edolaric guc dagueigun ne-
gar, gueure ama santea gozatzeco: daguigun gueure
culpa ispiriagatic, ceñac Virjiñari ematen diauzten
naibagueric andienac. Eguizue negar, guizonac, ecus-
tear andreric eder preciatuena, alaco miñez auro
eguiña. Eguizue, emacumeac, beste emacume bat one-
la ecusteaz; bai aldaguizue, zuen guzien honra-
garria dala. Negar eguizue, amac, onela ecusteaz a-
maric onena. Eguizue, alayunac, munduan izandu
dan alayuric tristeena ecusteaz. Eguizue, justuac,
padezitzen dacusutenean anima bat pecatuaren iza-
lic ere izan eztuena. Eguizue, pecatariac, ecusteaz
zeuen ama, ta bioztuteco izango dana. Daguidan nic
ere negar, naizanean guzien artean aundiena, alaco
obligacioz, aimberste eguin diauztan ontasunez, ofendi-
cu dedanean neure Jaungoicoa aiñ maiz, ta aiñ
itsusqui. Bay, ama santea, negar eguin nai det, ja-
quiñez, cerbait gozatuco dizudala biotz samindu
hori. Isuri eguizu neure beguietara zeure itsaso orre-
tatic negarrezco erreten bat, eraguin daguion negar
neure biotz ori, ta are odola salterazo daguion ugari.

Consueloric ez arquitze onec, beste guziac baño
gueiago, nere iritzian, minberatu cenan Virjiñaren biotza:

arjatic eztizacan bestezaz quejatu bere semeari bere
dolore justien artean. Cer bada, esango dit norbaitec? au-
saz Virjiña quejatu zan iñoiz ere passioco demporan?
Etzan egondu isiltasunic ichien, ta aundienean? Eguia da:
Evangelioac eztigu ecer esaten: baña bein iracurri ne-
uan, Eutimion, ta Metafrasten gauza bat, arrezquero
nere biotza chitez uquitzen didana. Dioe bada, ecen
gurutze-ondoan cegoala Virjiña, ta hitzic eguiten etzi-
jola semeac, urrago Joan ta assi cizacala bere, odola
ceriozen oin sanctuac, muñequiten, eta esan cijola, quid
hæc sunt, ô Domine Deus? Loquere aliquid modicum,
ad tuam matrem recreandam... quis mei curam geret,
ac defendet? Cer da au, nere Jauna ta Jaungoicoa?
Cer gera diru oei, nere semea? esan eguidazu cerbait,
hitzcho batbederic, zeure ama pozatzeco ta consolatzeco:
nore nizaz conttu iduquico deu, eta zeu il ezquero,
nore ni zaitzeco nau? Cer da hori, diot nere ere, Vir-
jiña santea? escatu eguiozu beste gauzaric: eta nai ez-
tezunean, Judioac onda daguitzañ, ceyatic ceraden uso
bearzunic bajuecoa, ta eztagocan zeure biotzari escari
gogorric, escatu eguiozu edolaric, atera zaguitzala alaco
min, damu, dolore aundietaric. Baña hitzcho batbaici-
can, ez? Ez nai deu, ta ez escatzen dijo gueiago, Loquere
aliquid modicum.

Eguingo al dijo bada alaco seme batec
escari chigui hori? Adi daguigun, cer erantzuten dijon:
Joan. 19. mulier, ecce filius tuus, emacumea, orra zeure semea.
oi eta amaren errayac, alaco eranzuera aditu ceneenac!

ô bone Jesu, erruguiz ta deadarrez dio emen san
Chrisostomoc, ô Jesus ona, ezteu berte icenic, ez berte
icengoitiric andre dolorcetaco orrec? Itzcho bat esca-
tu dizu, ta erantzuten diozu ain latz ta garratz? quid
tam dure loqueris? alaco amodioz, alaco humildadez
escatzeac mereci ote deu tratamentu goyor hori? quid
matrem tuam erubuisti, quæ te tam dulciter nutrivit,
tam dulciter lactavit? Andre hori da zeure ama,
ain ondo azi cinduena, ain goso bere bularrez baz-
catu cinduena: cergatic bada deitzen eztiozu zeure
ama? aisat lotsa cera alaco amagandic jaio izateaz?
Eztaguit, zelan dedan itz oec esateco biotzic: ezti-
got itzeunde oni jarraitu nai guehiago. Etzion jaitzez
ala itzeguin semeac amari, ez bada onez ta amodioz:
cergatic ce amaren icenaz aundituco ta berrituco ciraz-
can bere miñac, damuac, ta doloreac, ideo factum
esse arbitror, dio santuac, ne materno nomine ma-
tri dolorem amplius excitaret.

Nori miñaz contu iduquico deu? esan cion
Virjiñac; eta erantzun cion semeac, ecce filius tuus,
San Juani ceyocala, ta argan gueroi guztiri, arra
yon dezun zeure semea, zuzaz contu iduqui ta
zainceco zaituena. Usteco dezue, itz oequin gozatu
zala Virjiña cerbait? ez bada, dio San Bernardoc,
bai mindu ceuen bi aoco ezpata batec baño gueia-
go, an non tibi plusquam gladius sermo ille, ecce
filius tuus? ô nolaco ordaña ematen zacan Virji-
ñari, dio santuac! ematen zaca Zebedeoarena Jaun-
goico baten semearen orde, mirabe bat mundu onen
jabearen orde, guizon uts bat Jaungoico egiazco baten

orde, ô commutationem! filius Zebedæi pro filio Dei, servus pro Domino, homo purus pro Deo vero traditur.
Etziden bada triz oec consuelozic eman Virjiñari, ez eguiaqui San Juanen alderic, ceiña beri izan baitzan aren serviztari, ta seme leyal bat: baña bai guenre alderic; ceiñac guenec pecatuaitasunean amatzat dau-cajula Virjiña, ain guichi arrar contu iduquico guen-duan. Cein dira guichi Virjiñaren doloreaz contu eguiten deuceenac? Cein guichi doloreen amajanabeeren jaierá deuceenac? Cein guichi, hura triste icusi ta tris-tatzen, hura damururic icusi ta damutzen diranac?
Nori nizar contu eguingo deu, cijon Virjiñac? aurar eguiten deue araco aec, ta aec, urte guztian beren guztiai darraiztenac, beren postretac aoan, gogoan, biotzean darabiltzatenac, ta urtean beiñ, ta nori ere orta orta, ostiral santuz edo, Virjiñaren doloreaz oroitzen diranac? Araco, oneláco eguneran ere, Elei-zara datoztenac, ez Virjiñari lagun eguitera, ez a-ren miñac gozatzera, ez negarrez egotera, bai pecatu berriac eguitera, bai Virjiñari bere doloreac aundi-tzera, bai ezpata hura bere biotzean barrunago sar-tzera beren gogoeta itsusi loiaguiñ, beren gueñu, siñu, beguitatze lotsabagueaguin, beren itzqueta lizun lizunitsaguin? Cein dira oec, ta aec? Eztaquit nic: ezpaquidala nai Jaincoari Eleiz onetan alaco-ric izatea.
Edolaric izango aldira beste asco, Virji-ñaz contu deuceenac, ta aurrenez nere iritzian bearco deue Christoren Escuelaarac, aren batzarreta* santu au componzen deuceenac. Badaquit gauzco

*balleza

euangelioan Virjiña gurutzearen ondoan, baña ezta-
eust beste lagunic, ezpada San Juan, ta beste emacume
bi. Ceigoen bada Christori jarraitzen beste asco, ta aurre-
nez bere amabi Apostolu santuac? ala da eguia. Non da-
bilza bada, edo non ondatu dira? nola eztaude Virjiñare-
quin Gurutzearen ondoan? eta besteac lagun eguingo ez
gaitugen ere, cergatic eguin bear eztigue bere escolarrac,
beretzat beregandu cituan amabi anay santuac? Non
dabilza? non ibillico dira? batac saldu, ta besteac
ucatu deu, ta gañeracoac joan zaizca igues, utzitzen
deuela bacarric bere etsaien artean. Oi eta ceiñ itsus-
qui diruditen, bearrenac, ta bearrenean utseguitea, Chris-
to gure Jauna aiñ caraz utzitzea, Virjiña lagatzea aiñ
bacar. Ez alda Azcoitico Escuela santa onetan orrela-
coric icusico: ezta emen izango ez Christo saltzen, ez
ucatzen deuanic, ez Escuelatic igues dabillenic, ez Vir-
jiña bacar utzitzen deuanic. Apostoluac an arteraño
etziran sendo fedean; ta etzan mirestecoa, guizon argal
erbal, bildurti batzuec utseguitea. Baña oraingo Chris-
toren escolarrac, aiñ sendo dirala fedean, aiñ Ceru-
co indarrez, suz, arguiz beteac daudela, onelaco
anayac utseguitea, escolara bague, echean, jolascan,
jocoan, lotan, eizean ibiltea, hori bai, lizatequeala
gauza itsusi, ta damugarri. Berriz ere esango lioque
amac semeari, nore nizas contra iduquico deu, nore
zaitaco nau ni? Bearrenac igues diazquit, nola
etorrico zaizquit besteac? cerragandu dituzunac, ez-
tira malmeritzen, eztaue nizaz cajoric eguiten, ta
cer contra besteac eguingo deue nizaz? ta orra non
Escolaco anayac ere gozatuco ez leguizquioe Virjiñari

bere doloreac.

Ez nuque nai, iñor ajola, ta ardura bague onetan erori litequean; cerjatic iñori balanzaren bestè aldean ifinten badeu, nere iritzian aiñ astun izango da, ta aiñ damuzarri Virjiñarentzat, nola esan diyun dolore guztiac. Baña bildur naiz, erorïac daudela chitez asco. Eleiza ama santeac, dacusela Virjiña gurutzearen ondoan, itantzen deu, *quis est homo, qui non fleret, Christi matrem si videret in tanto supplicio?* Cein da guizona, ~~[illegible]~~ balecusChristoren ama alaco penaz, negar eguingo ez leuqueana? Ez lizateque guizona, bai abere, bai zembor, bai arcaitzen bat. Baña Eleiza santea, zeure colcoan, zeure barrutian, emen Azcoitian, badira guizon ta emacume asco, ez errequiric, ez damuric, ez miñic, ez guichien dan sentimenduric deueenac, Virjiña icusiajatic doloreen gueiegui̇az gañez eguinic. Cer dijot, damuric ta errequiric eztueenac? asco ta asco dira emen ajola ta ardura bagueac, Virjiña ala icusiaz, barrez, ta atseguiñez, ta pozic daudenac. Juduac izango dira orreec, deabruac, abere basotiarrac. Ez Eleiza santea, eztira Juduac, Christauac deitzte: eztira demonioac, arenac bai; eztira abereac, bai aec baño laz gogorragoac.

Davidec, ta Israel guciac emango digu pruebaric onena. Quendu cijon bicia Joab capitanac modu gaistoz Abner ceritzan bati: ta ara non bereala Israel gucian eleac ta belerc banatu ciran. Oya banatu zan, ecioz hura eguin zala, Erreguec Davidec

2 Reg. 3.

aguindu ta, berac naizeuala. Eta cer guin ceuan, gue-
zur artatic beze buena ondo aterazeagatic? Bein da-
nic bein aguindu ceuan, mundu guziac urratu cegui-
la soñecoa, ceña oi zan orduan damuric aundienaren
señalea, jantzi citezela ciliciòz, eta eguitela negar
2 Rg. 3. Abnerren honretan, Scindite vestimenta vestra, et
accingimini saccis, et plangite ante exequias Abner.
Baña etzan hori asco adiña, cebillen guezurra, ta
ogia desguiteco: ta arjatic Erregueac berac lagundu
ta jarraitu nai izandu cioen Abner zanaren cata-
uac, edo illoea, Rex David sequebatur feretrum: ta
obian gorputza sartzeracoan, adiaca ta deadarrez asi
ta negar aundiac eguin cituan, Cumque sepelissent
Abner in Hebron, levavit Rex David vocem suam,
et flevit super tumulum Abner. Eta oen guzien ondo-
ren cer izan ta suertatu zan? Escritura Santeac
dijona. Eriotz hura eguin beariar, jende guztiac si-
nistatu ceuan, Erregueac aguindu ta eguin zala: ba-
ña icusi cituancan Erreguearen miñ, negar, ta beste
damu aundi, ta guiarco baten señale aec, orduan
conturatu zan jende guzia, ta ezagutu ceuan, etze-
uala Erregueac aguindu, alaco persona bicia quen-
tzea, Tum demum cognovit omne vulgus, et Israel
universus, quoniam non actum esset a Rege, ut occi-
deretur Abner.

Bada, ene christauac, cer juicio zuezaz
eguin al dajuiguet adiunza oneran? Icusten dezue, Vir-
jiña doloreen gueieguiar orra bici dala, cerren bere
seme bacarrari bicia quendu dioen. Otsa banatu da
munduan, il deuela zuen pecatuagatic, ezta oec edo-

ceiñ moduzco esamejanac. Ala dioe Ceruan aingue-
ruen artean, ala dio infernuan deabruen artean, ala
dioe lurrean christau guzien artean. Eta dalaric au e-
guia, eztezue arduraric artzen, ta guezurra baliz bez-
la, pecatu eriozcoan ondatuaic zaute: ez lengoagatic
negar, bai berriro beste asco eguiten diarduzute.
Eta cer da au, ezgada adierazotzea, atseguiñ dezuela,
Christo gure Jauna illic icustea: badiozue, ondo da-
gocala, il dedilla, naibadeu, ala nai dezuela, ta naiz
eztanda daguiela, baita il ere dedilla dolorez, ta mi-
ñez Virjiña guciz santea. Bay bai, badira emen as-
co onezaz alegratzen diranac. Cergatic? Cergatic eztan
bere biotza dolorez urratzen, ta bere bularra golpez
zatitzen deuanic: Cergatic eztan negar eguiten deuanic
Christo illic, ta Virjiña dolorez icusiaren damuz, ta
urriquemenduz. Ta posible ote da, au esan dedilla
eguiaz, ta zeuen biotzac icaraciz artu eztezaela?
nai ote dezue, ots deshonragarri au zuegatic ba-
natzea, ta zeuen contra joan ditezen Christoren
eriotzea, ta bere amaren doloreac? Ez arren, neure
christau onac, ez Christoren odolagatic, ez Ama Virji-
ñaren doloreagatic.

Arestian entzun dezue, orretara co-
cer eguin beardezuten; autsi biotzac dolorez, bula-
rrac golpez, beguiac negarrez, scindite corda vestra,
cerren eriotzea eracarri diozuten Virjiñaren Seme
preciatuari, aita bezaiñ Jaungoico dan guizon bati,
gaitzic iñoiz ere ez, onic asco beti eguiten dizuten Jau-
nari. Baña cembat bider, ceiñ maiz, ceiñ itsusqui
ceiñ gauza chiquiagatic? oi eta non da gueure lotsea?

x quendu dijozuebiria:

ô yuen Adanen ondorengoen artean esquer gais-
toco humeac! gueure escuan dago graciaarequin ba-
tean Virjiñari bere Doloreac gozatzea, ta ecartea
bere atseguiñac, eta pozaldiac: jarrai daguiogun
Christori, Davidec bezala, ofuca, ta negarka; arra da-
guiogun gueren biotzetan betico gorroto, ta esaiyo
aundi bat pecatuari. Orrequin emendic aurrera ezta
joango gueure contura Christoren eriotzea, ta Virjiña-
ren doloreac: eztá len bezalaco ofizio gueure contra bana-
tuco ez Ceruan ta ez lurrean. Biz ala, ô doloreen
ama, guiñas tostu guera, pecatuaz damu degu; ta izu-
zu arren damu au biciago, ta andiago. Zugana ga-
tos guiñoc, zeure amodioac jácautzi zeure oñetara: berte-
ac artzen dituzu ondo, ez al gaituzu gu botaco zugan-
dic. Eztegu merecí zeure seme alaba izatea; baña ala
ere nai oi dezu deí zayuitzaten pecatarien ama. Gaiz-
qui bicitu guera, Jaincoa ofendidu degu, aren legue
santea autsi degu maiz: gueuc quiantzeraci degu zeu-
re semea, gueuc zauzcatzigu ain doloxes betea. ala
gaizqui. Baña eztaude alperric gurutzearen ondoan,
zutic zaude, gueuri laguntzeco, eta semearequico
gueure bitarteco ona izateco. Barcaiozca nayoca, emen
dauden guzien partez, ta barcaiozca nayozu: uguin-
guidazu biotz au, bera dedin, ta samur dedin; bete
guidazu pecatuaren gorrotoz, ta Jaungoicoaren amo-
dioz. ô Jesus Virjiñaren semea, esan guiozu berriro
agaitzala bere semetzat: ô Maria Jesusen ama, izan
zaite berriz gueure ama: izango guera zeure se-
meac, ez orain daño bezala muquer, gogor, legue bague

ta aiñ esquer gaistocoac, bai seme guiarco, amoriu,
firi, legac, bertoac. Eztezu cer itandu, gueiago nore zainco zai-
tien; gueuc amodio aundiarequin, gueure arnase, in-
dar, biui guciarequin, emen dirauzun antean graciaz,
ta guero ceruan gloriaz. Ad quam nos perducat etc.